

LURRALDE BEROETAN

Ego-Ameriketako baso aundietan aurkitzen gara gaur. Ez dago leoirik, ez katamotzik, baiña bai beste ugatz edo erapedun batzuk.

Guztien artean aundiena tapir da, indi-urdea, txikia izan arren ez da oitura onetakoa, oldarra da eta errez biur-tzen da abere guztien etsai.

Puma anka txikiak dauzan leoi baten antzekoa da eta eiztari bizi-bizia, indar aundikoa eta biotzez ankerra. Dana dala gitxitan erasoten dautso gizakiari. Iparraldeko basoe-tan ilten dauz oreiñak eta Arjentina'ko panpan beste abere batzuk, Barsil'en ban7z tximiñoiak dauz janari.



Olanetako erregaa.

Jaguaraundi neurritz luzca da baiña anak dauz txikiak eta gabaz ibiltzen da eiztari.

Guztien nagusi Jaguar dogu, gizonak eta bareak irun-tziten zalea. Orregaitik ditu etsai inditarrak eta eraso egi-ten dautsoe zaldiz naiz sare. Eta igeska zugaitzera igo-ten ba'dau, tiroka edo gezi pozoidunak jaurtiz ilten dabe.

Gau beroetan erregiña lez agertzen dan iretargia gobel dago, batzutan ezkutatu be egiten da eta urrengoan zida-rrerzko odeien artetik urtetzen da. Iretargi-izpiak ez dira sasipera sartzen baiña ibaietako ur-gaiñean diz-diz egiten dabe. Zingiraren ingueruetan eiztari dabil jaguar'a.

Txoriak euren abietan arrapatuko ete ditu? Ala txan-gurruari botako ete dautso atzamarra? Ala buztana goian dauala dabillen koati arrapauko ete dau? Arrain edo dor-tokaren bat iruntzikko ete dau? Ala erdi lotan dagoan muzkerra? Zeozer arrapatzeko errezagoa danaren billa ete dabil?

Jaguar pizti nabarra baso guztiko errege izugarria da

Baila goazen euri-zaparradadak izaten diran lekueta-ra.. Udabarriak loraz beteten dau ingurua. Abere txikiak ezkutuan bizi dira, baiña aundiak aundi agertzen dirala.

Abere guztien artean gorena dan (5'50 m.) jirafea agiri da: Ba-daki bere umetxuagana makurtzen, bailía goian diran abarren janariak billatzen joako eguna. Ez dau egi-ten ezelako orroa edo zaratarik, mutua da.

Jirafa txikiaren aragia oso gozua izaten da beste piz-tientzat, orregaitik amak zur egon bear izaten dau.

Ondoan dabil "rinozeronte" edo mutur-adarra: 1 '70' ko goierea, 4m. luzeera eta 2000 k. pixua. Narrua lodia eta ona.

Okerragoa da Afrika'ko mutur-adarra Asia'ko ori baiño Onen bizkar-gaiñeak txoriak ibiltzen dira eta lagun-tzat artzen dauz, gorputzeko zorriak kentzen dautsoezala-ko.

Baiña ona emen benetako erregea basa-piztien artean: Leoia! Urdailla utsik daukanean baiño ez dau orroa egi-ten.

Bakarka naiz taldeka ibiltzen da eizan eta jirafa, orein eta auntzak ez dautsoe bildur aundirik leoiari

lenak be okerrak dira eta lo dagoen gizakiai nai arte-giai erasoten dautse. Pizti benetan iguingarria jaku! Txa-kalak izaten dauz lagun.

Zabal aztertu barik izten doguz basa-idea, astonaba-rra, orein-auntzak, agali-katua, fenek azeria...

OLAZAR' tar Martin'ek eratua